

EIDER MENDOZA

Arrasate, 2023ko maiatzaren 14an

Diskurtso orientagarria. Hizlariak mitinean zehar ematen duen hitzaldia izango da balio duen bakarra.

Discurso orientativo. El único discurso válido será el que finalmente pronuncie el orador u oradora en el transcurso del mitin.

Eguerdi on.

1) Errealitatea: oinarri sendoak

Aste honetan izan dira zenbait albiste positibo Gipuzkoan. Egunotan, adibidez, adostu da Metaleko hitzarmena gure lurraldean. Albiste ona gure lurraldearentzat. Realak atzo ez zuen irabazi, berdindu baizik, baina esku-eskura izaten jarraitzen du Championsa. Champions-eko taldea, oinak lurrean, oinarri sendoak, baina Europako onenen artean jokatu. Gipuzkoa bezala. Champions-eko taldea daukagu, Champions-eko herria garelako!

Gipuzkoan, zorionez, oinarri sendoak ditugu. Ekonomia lehiakorra. Industria sendoa.

Desberdintasun maila oso baxuak, Europan onenen artean. Komunitate sendoa.

Dena ez da perfektua, jakitun gara horretaz. Baina batzuk nahiko luketena baino hobeto gaude. Hamarkadaz hamarkada, egindako lanaren ondorio da sendotasun hori; azken 8 urtetan egin den lanaren ondorio ere bada.

2) Errealitatea: arazoak

Hala ere, arazoak egon badaude Gipuzkoan. Jakina kezka eta ezkortasuna badaudela herritarren artean. Gipuzkoan, Europan eta ia-ia mundu osoan.

Prezioen gorakadak herritarren poltsikoak kaltetzen jarraitzen du. 4,2 egin du gora KPlak apirilean, ostiralean ezagutu genuen azken datua. Etxebizitzak, alokairuak... kezka iturri dira. Zer esanik ez, tipo aldakorreko hipoteka duten herritarrak pairatzen ari direna. Arazoak badaude, eta badakigu zeintzuk diren! Badakigu herritarren eguneroko kezkek eta buruhaustek zeintzuk diren. Gure herrian bizi garelako, Euskadin bizi gara. Herri honetaz argazki prekario, katastrofista eta dekadentea egiten duten horiek non bizi dira? Murtzian?

Malasañan? Twitterren? Edo La Sextan? NON? Benetan sinesten dute? Edota berdin zaie zer esan EAJri kalte egiteko bada? Zertan dabilta! Zertan dabilta! Etxekalte eta herrikalte! Zorionez herritarrek badakite dena ez dela txarra edo okerragoa! Eta badakite arazoak, benetakoak zeintzuk diren. Eta guk ere bai! Guk ere badakigu zeintzuk diren! Eta horiei irtenbideak emateko lan egiten dugu egunero egunero!

3) Botoaren garrantzia

Datorren maiatzaren 28an, Gipuzkoak dituen zailtasun horiei aurre nola egin behar dien erabakitzea dago jokoan. Eta erabaki garrantzitsua da! Ortuzarrek esaten zuen ostegunean: etxean geratzeak muturreko aukerei eta populistei egiten die mesede, haiek inoiz ez baitira etxean geratzen. Abstentzioak gizarte osoari egiten dio kalte, erakunde ahul eta desorekatuak uzten baititu. Demokrazia ahultzen du botoa ez emateak, eta begira munduan demokrazia ez dagoen lekuetan zer dagoen! Datozen bi asteetan, beraz, gure onena eman behar dugu kontzientziak astintzeko eta herritarrak mobilizatzeko. Eta egingo dugu!

4) Dikotomia

Eta behin botoaren garrantziaz jabetuta, ze aukera ditugu Gipuzkoan? Nagusiki bi aukera ditugu: Bata, pankartak, pintadak eta ez-aren plataformetan gelditzea. Bestea, arazoak identifikatu, aurre egin, eta konponbideak bilatzea. Eusko Alderdi Jeltzalearen hautua bigarrenkoa da. Hala izan da gure ibilbide politiko guztian zehar. Ez genuen denean asmatuko, noski akatsak egin ditugula. Baina besteak barrikadetan zeuden bitartean, Eusko Alderdi Jeltzalea herria egiten aritu da. Guk etxeari eutsi diogu. Guk jarrera bakarra eduki dugulako eta daukagulako: eraikitzailea! Eusko Alderdi Jeltzalea beti herrigintza eraikitzailean bakarrik egon delako

5) Madril

Maiatzaren 28an Euskadin ez ezik, Estatuko udalerrietan eta hainbat erkidegotan ere egingo dira hauteskundeak. Eta Espainiako ferianteen mezuak ozen entzuten dira egunotan gurean. Ferianteak diot, bai, egunero dutelako titular merkeren bat saltzeko. Deskontua, bonua, txekoa... Eta arazo estrukturalak zer? Nork heltzen die benetako arazoei? Diru publikoa erabiliz helburu partidista eta elektoralista efektistak bilatzen! Baina zer da hau? Arduragabekeriak jardutea da hori, epe motzari bakarrik begiratzea. Hori ez da EAJ-PNVren estiloa; hori ez da inoiz izan gipuzkoarron estiloa. Eta ezker abertzalea zer? Ezker abertzalea joko horren parte izateko itzulipurdiak egiten. Madrilgo zirko lotsagarrian figurante moduan parte hartzen, baita euskaldunontzat etxekalte diren jokoetan ere! Baina zer dabilta? Zer dabilta!!!!

6) Adibidea 1

Hemen, Gipuzkoan, RENFEren trenarekin dugu estatuaren politika publikoak egiteko modu honen guztiaren adibide garbi bat. Deskontuak gora eta behera, eta bitartean zerbitzua porru eginda. Iristen ez diren trenak, normaltasun osoz berandu ibiltzen direnak edota ez dakit zenbat orduz burdinbidearen erdian katigatuta geratzen direnak. Anomalia izan beharko lukeena, guztiz normalizatuta. Behin baino gehiagotan esan dut, baina berriro diot: Gipuzkoak eta Euskadik lehenbailehen behar dugu tren honen eskuduntza. Utzi guri egiten! Utzi guri gurea dena kudeatzen, eta herritar denek irabaziko dute!

7) Adibidea 2

Beste adibide bat: Inflazioari aurre egiteko, Pedro Santxezek pasa den udan 200 euroko txekoa iragarri zuen. Guk, Euskadin, gure eskumenik indartsuena erabili genuen helburu berberarekin: fiskalitatea, zerga deflaktatuz eta kenkari berezi bat martxan jarriz. Zein izan da neurri hauen eragina? 500.000 eurora ere ez dakit iritsi den Santxezen txekearen inpaktua. Gure neurriekin, berriz, 102,3 milioi ari da itzultzen Ogasuna herritarrei Errenta kanpaina honetan. 200 aldiz eraginkorragoak gara!

Eta hauteskunde hauetan gure zergak, Ogasuna, nork kudeatuko duen erabakiko da botoekin, ez Madrilen Sanchismoa edo Ayusismoa gailenduko den. Gure botoak gure zergei, gure zerbitzuei, gure garraioei, gure hezkuntzari, gure osasunari buruzkoak dira! Ez dira haien zirkoari buruzkoak! Jarrai dezatela zirkoan, baina utz diezagutela guri gurea erabakitzen! Euskaldunok! Gu gurera! Gu gurera! Herrigintzan, gure herria egunero eraikitzen jarraitzera!
AURRERA BATERA!

8) KORTEA EUSKARAZ

Herri honek dituen arazoak ez direlako pankarta edota titular merkeekin konpontzen. Gurea lanerako bestelako modu bat da: umil eta apal, baina zintzo eta eraginkor, herritarrek dituzten arazoei konponbidea ematen. Gipuzkoarren estiloa, euskaldunon estiloa, EAJ-PNVren egiteko modua!

9) KORTEA ERDERAZ

Los problemas que tiene este país no se arreglan ni con pancartas ni con medidas más efectistas que efectivas. Aquí tenemos una cultura del trabajo distinta: con humildad y sencillez, pero también con honestidad y sobre todo con efectividad, para dar solución a los problemas de la ciudadanía. Al estilo guipuzcoano, al estilo vasco, al estilo EAJ-PNV!

10) Itxiera (intentsitatearekin)

Etorkizunera begira, Gipuzkoa aurrerabidean jartzea da gure lehentasuna. Programa sendoa aurkeztu dugu, 300 neurri baino gehiagorekin. Hurrengo belaunaldien ongizatea dago jokoan. Gure seme-alaben ongizatearen oinarriak dira eraiki behar ditugunak. Horretarako, gure ikurrei heldu behar diegu, eta biharko egunera begiratu: Enpresak bultzatu. Ekonomia garatu. Herritarrak babestu. Giza eskubide guztiak defendatu.

Egiten dakigulako: Langileen partaidetza bultzatuz. Egoitza sarean berrikuntza sustatuz. Klima larrialdiari aurrez eginez. Fiskalitatea esprimituz. Demokrazian sakonduz. Eta hori guztia nola? Batera! Elkarlanean!

Ez gaude etsipenean eta ezkortasunean geratzeko prest: Katastrofismoaren aurrean, ilusioa. Arazoen aurrean, soluzioak. Kritiken aurrean, eztabaida demokratikoa. Akatsen aurrean, zuzenketak. Promesa orokorren aurrean, programa zehatzak. Arinkeriaren aurrean, seriotasuna. Eztizko hitz hutsen aurrean, aurrekontu zehatzak. Esaldi borobilen aurrean, 350 egitasmo transformatzaile. Madrilen aurrean, Euskadi, Euskadi, Euskadi! Show-aren aurrean, herrigintza arduratsua. Zirkoaren aurrean, lana, lana eta lana! Elkarrekin, herri honek Champions-ekoa izaten jarraituko duelako!

Aurrera, batera!